



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO ERABILIKO DIREN UDAL ESPAZIOEN LAGAPENAREN ADJUDIKAZIO DEIALDIA. GETXO ITSAS HUB.

Helburua	Deialdi honetan jasotako baldintzetan lagako dira Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapen Arloari esleitutako Getxo Itsas Hub izeneko udal espazioak. Getxo Itsas Hub, kirol-nabigazioko ekintzailtza-zentroa , Arriluze kaia z.g. helbidean dago, Getxoko Kirol Portuan. Azalera erabilgarria 230 m ² -koa da, eta 22 lanpostuk osatzen dute enpresa-proiektuetarako. Bi gunetan banatuta: A gunea (lan-espazio finkoak) eta B gunea (txandakakoa), eta eremu komunak: erabilera anitzeko gela eta bilera-gelak, officea, komunak, takilak. Honako zerbitzuak ditu: elektrizitatea, Internet, klimatizazioa, garbiketa, mantentze-lanak eta segurtasuna.
Onuradunak	Guneen lagapena pertsona fisikoen eta erakunde en alde egin ahal izango da, ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta beren jarduera garatzeko langune bat behar badute, jarduera horrek ekonomia sustapenarekin zerikusia badauka eta aurreko puntuan azaldutako jarduketa-ildoetako batean kokatzen bada. Zehatz-mehatz, honako erakunde hauek izango dute aukera: <ul style="list-style-type: none"> - Egoitza soziala eta fiskala Getxo udalerrian daukatenek edo - Beren lantokia Getxo udalerrian daukatenek edo jarduera bertan garatzen dutenek edo - Egoitza soziala eta fiskala Getxo udalerritik kanpo daukatenek, baina beren enpresa garapeneko proiektuaren arabera Getxo udalerrian kokatuko direnek. <p>Oinarri hauen ondorioetarako, "erakunde" definizioaren barne honako hauek hartuko dira: enpresa indibidualak, merkataritza sozietateak, elkarteak, fundazioak, ondasun erkidegoak...</p> <p>Pertsona fisikoei dagokienez, ekintzailtza proiektu bat daukaten pertsonak edo pertsona taldeek izango dute aukera, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Getxon erroldatuta badaude edo - Enpresa proiektua Getxon ezarriko badute.
Betekizun espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioan garatu beharreko proiektua lagatako espazio-tipologiara (bulegoa) egokitzea. • Deialdi honetan lehentasuna izango dute itsasoarekin eta irristatzearekin lotutako proiektuek, baita lotutako turismoak ere.
Lagapenaren iraupena eta mota.	Erabilera hori 2 urtez esleituko da, eta urtebete luzatzeko aukera 1 egongo da.
Lanpostuak proiektuko	22 lanpostu eskaintzen dira bi gunetan: <ul style="list-style-type: none"> • A gunea: Lan-eremu finkoa. Proiektu bakoitzak lantoki finko bat izango du, lortutako puntuazioaren arabera esleituko dena. 8 lanpostu izango dira. • B gunea: Erabilera malguko edo txandakako lan-espazioa. Ez da lanerako leku finkorik izango. 14 lanpostu izango dira. <p>Gehienez ere hiru lanpostu eskatu ahal izango dira enpresa-proiektu bakoitzeko. Hasiera batean, gehienez 2 lanpostu eskatu ahal izango dira proiektu bakoitzeko. Lanpostu hutsak egonez gero, gehienez hiru lanpostu eskatu ahal izango dira.</p>



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



Lagapenaren araubide ekonomikoa.	<p>Aldi baterako lagapenen araubide ekonomikoan, enpresa proiektuetarako udal guneak okupatzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean xedatutakoak beteko dira.</p> <ul style="list-style-type: none">• Lanpostu finkoak edo iraunkorrak (A gunea) 90,75 euro dira (BEZ barne) hilabete (edo frakzio) eta lanpostu bakoitzeko.• Erabilera malguko edo txandakako lanpostuak (B gunea) 48,40 euro (BEZ barne), hilabete (edo frakzio) eta lanpostu bakoitzeko. <p>Ordaindu beharreko tarifa nahitaez helbideratu beharko da.</p>
Eskaerak	<p>Eskaerak egoitza elektronikoaren bidez egingo dira: http://www.getxo.eus (AEB Administrazio Elektronikoko Bulegoa Nire Kudeaketak Etiketik-> Nire Erregistro Telematikoa-> Egin eskaera->Ohar eredua =Getxo Itsas Hub 2023 eskaera)</p>
Deialdiaren oinarriak hemen:	<ul style="list-style-type: none">➤ Martxoaren 28ko BAO, asteartea.➤ https://www.getxo.eus/promocion-economica/
Hautapen-irizpideak eta prozesua.	<p>Baloratzeko eta, ondorioz, udal guneen erabilera esleitzeko helburuaz, balorazio irizpide hauek hartuko dira aintzat:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna. 25 puntu, gehienez ere.2. Lantaldearen gaitasuna. 15 puntu, gehienez ere.3. Egoitza (Getxo eta Bizkaia). 10 puntu, gehienez ere.4. Proiektu berritzaileak. 10 puntu gehienez ere.5. Emakumeek gidatutako proiektuak. 5 puntu, gehienez.6. Getxoko eremu estrategikoetako proiektuak. 8 puntu, gehienez.7. Itsasoarekin eta irristatzearekin lotutako proiektuak. 8 puntu, gehienez ere.8. Tokiko Garapen Agentzia baten tutorizazioa izatea. 7 puntu, gehienez ere9. Sortu berri diren enpresak. 5 puntu, gehienez ere10. Getxoko udal-espazioak lagatzeko deialdietara lehen aldiz aurkeztu diren proiektuak. 10 puntu. <p>Guneetara sartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da gutxienez 15 puntu lortzea 1. atalean (proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna) eta 10 puntu 2. atalean (lantaldearen gaitasuna).</p>